



Graduko Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko
errektoreordeari zuzendua

A la Atención de: Vicerrectora de Estudios de Grado
e Innovación

Eguna: 2013/11/26

Fecha: 26/11/2013

Aldezlearen gomendioa: matrikulako prezioa murriztea gradu desberdinetako maila komunean lortutako ohorezko matrikulengatik.

Recomendación de la Aldezle sobre reducción del precio de la matrícula por Matrículas de Honor en el curso previo común con otro grado

Aldezlearen erakundean babes eskaria hartu genuen irailaren 26an, Graduko Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeak irailaren 18an emandako erabakia dela-eta, X Graduko bigarren mailako ikasleak aurkeztua; izan ere, erabaki horren bidez ikasleari ezetsi egin zitzaion aurtengo ikasturteko matrikulan prezioa murrizteko eskaria, iaz Y Graduan lortutako sei ohorezko matrikulak oinarri hartuta egindakoa.

La institución Aldezle recibió el pasado 26 de septiembre solicitud de amparo por parte de un alumno, de segundo curso del Grado X, frente a la resolución del Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación, de 18 de septiembre, en la que se desestimaba su solicitud de aplicar, en el cálculo de su matrícula para el presente curso académico, la deducción por las seis matrículas de honor obtenidas el curso anterior en el Grado Y.

Ikaslearen arrazoiak kontuan hartuta, aldezelearen ustez bidezkoa da eskaria onartzea, ikasleak Y Graduko ikasketak utzi dituen arren X Graduko ikasketetara pasatzeko, bi graduetako lehenengo mailan gai berberak ikasten baitituzte eta, beraz, ikasle honek iazko ikasturtean irakasgai berberak ikasiko zituelako X Graduko ikasketetan matrikulatuta egon izan balitz. Horrela, bada, urriaren 2an gure aholkuaren zirriborroa bidali genion errektoreordeari egoki iritzitako alegazioak egin zitzaizkion.

Aceptando los argumentos del alumno, la Aldezle considera de justicia atender la petición recibida, dado que, aunque el alumno ha pasado del Grado Y al Grado X, ha cursado exactamente los mismos estudios que si se hubiese matriculado en X desde un principio, ya que los estudios de primer curso son comunes a ambos grados. En consecuencia, con fecha 2 de octubre, envía al Vicerrectorado un borrador de la recomendación elaborada en este sentido a fin de que se le envíe cualquier alegación que se considere oportuna.

Urriaren 23an hartu genuen Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearen erantzuna, eta berriz ere adierazi zuen indarreko araudiari jarraituz ez zela bidezkoa ohorezko matrikulengatik matrikulan prezioak murrizteko eskari hura onartzea, ikaslea ikasketaz aldatu zelako. Azaltzen du bi graduetako lehenengo mailan irakasgai berak ikasten diren arren, ikasleak, bere borondatez, ikasketak aldatu dituela, eta ez dagoela jarraipenik ikasketetan,

El pasado 23 de octubre la institución Aldezle recibe respuesta de Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación reiterando que en aplicación de la normativa vigente no procede, en este caso, aplicar las deducciones por matrículas de honor, dado que se ha producido un cambio de estudios. Se aclara que, aunque las asignaturas del primer curso sean compartidas por ambos grados, se produce un



hori izanik arautegian jasotako baldintza ohorezko matrikulengatik prezioak murriztu ahal izateko.

Erantzuna aztertu ondoren, aldezia errektoreordearekin harremanetan jarri zen jakinarazteko erantzuna ulergarria dela legea hertsiki ezarrita, baina, hala ere, gure ustez unibertsitateko eguneroko jardunean sortzen diren arazoak ebazte aldera legea zorrotasun osoz ezartzeko irizpidea ez dela nahikoa, eta ondorio ez desiragarriak eragin ditzakeela, eta horrenbestez, hitzez hitzekotik aldentu eta interpretazio malguagoa egin beharra dagoela. Errektoreordeak dio ez dagoela araua beste era batera ulertzeko modurik.

Horrela, bada, errektoreordearekin hitz egin ondoren, eta haren arrazoiak kontuan hartu ondoren, aldeziak idatziz jasota utzi nahi du aurreko ikasturtean maila komunetan lortutako ohorezko matrikulengatik matrikulako prezioak murriztearen alde dagoela, eta, beraz, horren aldeko gomendio egiten duela. Bestalde, uste dugu ez dagoela bukatuta gaiaren inguruko hausnarketa, eta gure jarreraren arrazoiak kontuan izango direlakoan, horien laburpena aurkeztuko dut.

1.-Kasu honetan, araua hitzez hitz ezartzeak *izana* eta *izena* zer diren zehaztera garamatza:

Kasu honetan *izana*, benetan gertatutakoa, da ikasle honek X Gradu 1. mailako ikasle batek ikasitako irakasgai berberak ikasi dituela, eta baldintza berberetan: irakasgaiak berak izan dira, irakasleak ere bai, eta taldea ere bera izan zen Y Gradu 1. mailako eta X Gradu 1. mailako ikasleentzat. Ikastegiak berak adierazi digu lehenengo egunetik hasita bi graduetako ikasleek talde bera osatzen dutela, ondorio guztietarako osatu ere. Are gehiago: irakasgaietan osatzen diren lan taldeetan Y eta X Gradu 1. mailako ikasleak egoten dira nahastean, eta guztiek batera egiten dute lan.

cambio de estudios que obedece únicamente a la voluntad del alumno, y no una continuidad de estudios como ocurre en el resto de supuestos que contempla la normativa para la aplicación de las deducciones por matrículas de honor.

Tras analizar la respuesta, la Aldezie se pone en contacto con la Sra. Vicerrectora a fin de comunicarle que, aunque entiende dicha respuesta desde un punto estrictamente jurídico, considera que, a la hora de resolver los problemas que pueden plantearse en el día a día en la comunidad universitaria, este punto de vista, aplicado en su literalidad, a menudo resulta insuficiente, conllevando efectos no deseables, razón por la cual aboga por una interpretación de la norma que atiende más a su sentido último que a su literalidad. La Vicerrectora, por su parte, arguye que no cabe otra interpretación de la norma.

Tal como comentó a la Sra. Vicerrectora en dicha conversación, tras considerar las razones aducidas, la Aldezie desearía dejar constancia escrita de sus argumentos en defensa de la deducción de precios públicos por Matrículas de Honor en curso común previo y hacer una recomendación concreta en tal sentido. Así pues, considerando que la reflexión sobre el tema no está cerrada, y en la confianza de que sus argumentos serán debidamente sopesados, pasa a exponerlos sucintamente.

1.-En el presente caso, la interpretación literal de la norma lleva a identificar el nombre y la cosa.

En el caso que nos ocupa la *cosa*, *el hecho real*, es que el solicitante ha cursado exactamente los mismos estudios y en las mismas condiciones que cualquier otro u otra estudiante de 1º de X. Las asignaturas, el profesorado y el grupo eran exactamente los mismos para los y las estudiantes de 1º de Y y de 1º de X. Desde el propio centro se nos ha informado que desde el primer día a las y los estudiantes del curso común se les dice que, a todos los efectos,



Beraz, *izan, izatez*, gauza berbera dira, *izena* beste bat den arren.

Azken finean, bada, paperean, bai, ikaslea beste ikasketa batzuk egiten ari da, baina, berez, ez da horrela. Benetan gertatukoari eutsiz gero, ikaslea ez da ikasketaz aldatu, edo X Graduako 2. mailan dituen ikaskideak aldatu diren hein berean aldatu ditu, berez, iaz X Graduako matrikulatuta zeuden ikaskideek 1. mailan ikasitako gai berberak ikasi baitzituen.

2.-Beraz, ikasleak adierazitakoa guztiz ulergarria da eta begi-bistakoa, edozeinen ikuspegitik, haren arrazoiak guztiz defendagarriak direla. Gure ustez, tamalgarria litzateke, eta saihestu egin beharrekoa da, araua zorrotzegi ulertu eta ezartzeagatik zentzugabekeria egitea, eta unibertsitateko kideek sentitzea erakundeak ez dituela ulertzen eta, ondorioz, erakundetik urruntzea.

3.-Gainera, kasu honetan are gehiago saihestu beharko genuke egoera hori, arau horren helburua baita espedienterik onena daukaten ikasleak saritzea. Hots, zentzuzkoa da eta, erakundearen gobernurako zehurtiazkoa ere bada, araua malguago ulertzea, oinarrian jaso nahi dena kontuan hartuta.

Ez litzateke batere egokia izango unibertsitateko kideei, eta, batez ere, ikaslerik onenei, erakundea gauza abstraktua dela sentiaraztea, legea errukigabe ezartzen duena, sentiarazi beharrean erakundea sentibera dela, guztion indarrak bateratzeko prest dagoena, hartara guztion artean unibertsitate gero eta hobea lortzeko, eta prest dagoena lan hori aitortu eta saritzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, eta errektoreordearen ustez ez denez posible araua guk proposatutako eran ulertzea, honakoa da aldezearen gomendioa:

constituyen un único grupo. Asimismo, los distintos grupos de trabajo en las asignaturas están conformados tanto por alumnado del Grado Y como del Grado X, que trabajan conjuntamente en cada grupo.

En definitiva, la *cosa* era la misma, se le llame como se le llame en un papel.

Se ha producido un cambio de estudios sobre el papel, pero no en la realidad. Si nos atenemos a la realidad de los hechos, el estudiante no ha cambiado de estudios más que cualquiera de sus compañeros y compañeras de 2º curso del Grado X que el año pasado cursaron 1º habiéndose matriculado en el Grado X y no en el Grado Y.

2.-En este sentido, desde el punto de vista de cualquier persona, el planteamiento del alumno resulta razonable y perfectamente defendible. Y, a nuestro entender, sería muy triste, y debería evitarse a toda costa, que una interpretación excesivamente literal de las normativas llevara a contradecir el sentido común y generara en los miembros de la comunidad universitaria sentimientos de incomprensión y distanciamiento con respecto a la institución.

3.-Ello más aún cuando, como ocurre en el presente caso, la medida cuya aplicación se pide se introdujo en la normativa universitaria para premiar los mejores expedientes. Así pues, no sólo el sentido común, también la prudencia en el gobierno de la institución aconseja una interpretación más flexible - más acorde con el fondo- de la norma.

No sería nada bueno para la comunidad universitaria que sus miembros, y en particular los y las estudiantes más brillantes, vivieran la administración de la misma más como un ente abstracto que aplica la ley inexorablemente que como una institución sensible, aliada en el esfuerzo común por conseguir



Errektoregoak proposamena egitea Eusko Jaurlaritzari ohorezko matrikulengatik matrikulako prezioak murrizteko arauan kontuan har ditzan gradu desberdinetako maila komunean lortutako ohorezko matrikulak.

una universidad cada vez mejor y que reconoce y premia las aportaciones en ese sentido.

A partir de estas consideraciones, y dado que Vicerrectorado considera imposible una interpretación de la norma como la aquí propuesta, la Aldezle recomienda:

Que el Rectorado eleve una propuesta al Gobierno Vasco para que se incluya el supuesto de curso previo común a dos o más grados en la normativa de reducción del precio de la matrícula por las matrículas de honor.



Sin.: Itziar Etxebarria

UPV/EHUko aldezlea

Aldezle de la UPV/EHU